BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5952

AGINDUA, 2011ko azaroaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, EGAren Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritzako (ABOZko) kide bat izendatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2004ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez, Jon-Simon Gartzia Legarreta jauna izendatu zen ABOZko kide eta, EGAren izenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkari ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkartean. Ordutik hona lan horietan aritu da, baina gaur egun ez du jarraitzerik. Horregatik, aurrerantzean ABOZko kide eta EGAren izenean ALTEko ordezkari jardungo duen kidea izendatu beharra dago.

Beraz, 1982ko irailaren 20ko Aginduari (192-11-08ko EHAA) jarraituz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Jon-Simon Gartzia Legarreta jaunaren izendapena indarrik gabe uztea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– Gemma Macho Aguillo andrea ABOZko kide izendatzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ALTErako ordezkari gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.